

DSS2016.EU

TIRABIRAK

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

Tiras que aflojan

“TIRABIRAK / TIRAS QUE AFLOJAN” GURE IRAGAN GATAZKATSUA JORRATU DUTEN BINETEN GAINEKO EGITASMOA DA.

Euskal Herriko Unibertsitateko EMAN ikerketa taldeak, Donostia/San Sebastian 2016 Europako Kultur Hiriburutzako programarentzat, euskal gatazkei buruzko tira grafikoaren gaineko laginketa sistematiko eta zabala jorratu du. Proiektu transmediaren lehendabiziko emaitza da erakusketa ibiltaria.

Erakusketan

azken lau hamarkadotan egunkari garrantzitsuenetan argitaratutako marrazkigile ugariaren zintak daude ikusgai. Askotariko hurbilpen, ikuspuntu eta estiloz eraikitako proiektua da.

ARTXIBO INTERAKTIBOA:

Erakusketarako aukeratutako binetak era digitalean ikuskatzeko aukera izango da erakusketan bertan. Datu-base honetan, gainera, erabiltzaileak hainbat kontsulta aukera izango ditu eskura (datak, egunkariak, sortzaileak...).

ELKARRIZKETAK:

Telebista pantaila batean bineten sortzaileei egindako elkarrizketak izango dira ikusgai, baita komiki-gintza politikoa zein umore grafikoa aztertu duten adituak, edota komunikabideetako arduradunen hitzak ere.

IKUS-ENTZUNEZKO ONDAREA:

EITBren artxibo irudiekin osatutako kontakizuna ere izango da ikusgai; binetek erakusten dituzten gertaeren narrazioa garaiko irudiekin osatzeko.



WEBDOKA:

Dokumental interaktibo batean bilduko dira erakusketako bineta guztien datu-basea, elkarrizketak eta ibilbide kronologikoa. Horrela, erabiltzaileari hainbat aukera eskainiko zaizkio eta bisitari bakoitzak aukeratuko du zer ibilbide egin nahi duen **TIRABIRAK / Tiras que aflojan**en unibertsoan.

Donostia/San Sebastian 2016 Europako Kultur

Hiriburutzaren baitako Bakearen Itsasargian kokatzen da egitasmoa, bakearen, errespetuaren eta bizikidetzaren eremuan, alegia. Iraganari buruzko begiraden aniztasuna du oinarri, eta hori da, hain zuzen ere, erronkarik behinena: ikuspegi anitz jasotzea kontakizun partekatuaren hazia ereiteko. Zentzu horretan, egunkari eta aldizkarietako binetek narrazio ugari ezagutzeko eta aintzat hartzeko lagungarri izan daitezke.

“Cartoons in particular and images in general tell the story better than the written word because written styles are ever evolving, whereas symbols seem more durable.”

Victor S. Navasky (2013). *The Art of Controversy*. New York, Alfred A. Knopf, 41 orr.




Zehazki, **TIRABIRAK / Tiras que aflojan** erakusketak 1977 eta 2016 urteen artean argitaratu-tako binetak jasotzen ditu. Lau hamarkada luze horietan gure jendarteak pairatutako 150 gertakari aukeratu eta egunkarietan aztertu dira. Lehendabiziko hamarkadetan argitaratutako binetak sei egunkaritatik bildu dira: *Deia, Egin, El Diario Vasco, El Correo, ABC* eta *El País*. 1988tik aurrera aldiz, arestian aipatutakoei, *Diario de Navarra* gehitu zaie, 1989an *El Mundo* eta 1990ean *Euskaldunon Egunkaria*. Ondoren *Gara* eta *Berria* ere aintzat hartu dira. Hortaz, azken hogeita sei urteak aztertzerakoan gertakari bakoitzeko, gutxienez, zortzi egunkari behatu dira. Inoiz, *La Razón, Diario de Noticias de Navarra, Diario 16, Ya, La Vanguardia*, eta Ipar Euskal Herriko *Enbata, Sud Ouest* edo *Le Journal du Pays Basque*-eko tirek ere gure erakusketa aberastu dute. Batutakoak ez dira urte luze hauetan argitaratu diren guztiak, noski, baina erakusketara marrazkilarien unibertso zabalak ekarri da:

ZALDIEROA, MÁXIMO, ZULET, PERIDIS, TASIO, FORGES, MÁXIMO, OROZ, OLARIAGA, RIPA, MATTIN, RICARDO & NACHO, MARTIN MORALES, AÓS, MARTINTXO, RAMÓN, IÑAKI & PINTU, DUSÓN, IDÍGORAS & PACHI, MINGOTE, ANGEL & GUILLERMO, JON ZABALETA, MICHEL ITURRIA, JUAN CARLOS EGUILLOR, ROMEU, PUEBLA, RAFA RAMOS, ADUR, ANTÓN, AXPI, ENDIKA, ENEKO, FERRERES, GALLEGO & REY, JON PEDRO, KOLDO, LÓPEZ & PEREZ, MAD, MOKORDO, ORI, PELI, EL PERICH, RICARDO, ROMEU, TULINO eta XIM.

TIRABIRAK / Tiras que aflojan erakusketa mamitzeko, 15.000 egunkari inguru aztertu dira eta lagina osatzeko, 30.000 bineta baino gehiago ikuskatu. Bineta horietatik, aipatutako gertakariekin zerikusirik duten 3.500 tira identifikatu dira. Azkenik, 448 ekarri dira erakusketa fisikora eta beste horrenbeste erakusketaren webgunean kokatuko den errepositorioan egongo dira ikusgai.

Proiektua jorrazteko prozesuak iraun duen bitartean, gertakari eta gatazka horien ziklo luzea berrikusterakoan, TALDEKIDEEN arteko hausnarketak eta eztabaidak etengabeak izan dira. Erakusketaren eragileok bizitako esperientzia, **TIRABIRAK / Tiras que aflojan**era hurbiltzen den orori ere eskaini nahi zaio. Horretarako, honako helburu orokorrak markatu dira:

- Euskal iragan gatazkatsuaren (ber)ezagutza partekatua bultzatu.
- Ezagutza partekatu horretan oinarrituta, gertatutakoari buruzko hausnarketa kritiko orokorra eta gogoeta bideratu, inoiz errepika ez dadin.
- Gatazken oinarrien inguruko hausnarketa eragin, konponbiderako saiakerak erakutsiz, gaurko eta etorkizuneko bizikidetzara erakitze lagungarri izan daitezten.
- Komunikabide eta, zehazki, egunkari eta umore grafikoaren eginkizun eta ardura publikoari buruz eztabaida publikoa suspertu.



A. TITULARREN TALKA

1995 / 12 / 12 - Diario de Navarra - Oroz
 2000 / 02 / 27 - Gara - Tasio
 2011 / 10 / 19 - Berria - Zaldieroa

B. MIÑETAK

1995 / 01 / 01 - ABC - Mingote
 2001 / 05 / 25 - El País - Forges
 2000 / 02 / 23 - El País - Peridis

C. UMOREZ IRAULI

2007 / 01 / 14 - Berria - Montxo
 1995 / 01 / 25 - El Correo - Zulet
 1977 / 10 / 16 - El País - Máximo

KONTSULTA GUNEA


C. UMOREZ IRAULI

B. MIÑETAK

O. AURREKARIAK

SARRERA

A. TITULARREN TALKA



LAU XEDE NAGUSI HORIEK GURE IRAGAN HURBILA BERRAZTERTZEKO EREMU UGARITARA ERAMAN ETA, ERAKUSKETA FISIKOAN ERE, HIRU MODULU HAUETAN ISLATUAK IKUSIKO DIRA:

A. TITULARREN TALKA IDEIEN TIRABIRAK BINETETAN ISLATUTA: PENTSA-MOLDE KRITIKOA ETA IRONIA ESKERTZEKOAK IZAN DIRA BETI

Talka politikoa zuzenean islatu da egunkarietako binetetan. Editorialetan eta berriak erakusteko moduetan bezala, bineten bitartez ere iritzi kontra-jarriak adierazi dira. Haietan, gainera, ez dira falta izan hain eskertzeakoak diren pentsamolde kritikoa eta ironia.

Lagun hurkoaren zioak eta arrazoiak ezagutuko dira, hartara, bineten eskutik, eta gatazken oinarrian dagoen ideien talka aintzat hartzeko eta partekatzeko aukera ezinhobea izango da.

Judith Butlerren hitzetan, dolua eragin duten une bortitzak testuinguruan kokatu beharko genituzke gertakarien garaiak ezagutzerakoan, iraganari botatako begirada kritikoa bitartez, etorkizunean gisa bereko nahi-gabeak errepika ez daitezten. Zentzu horretan, testuinguru horri buruzko ikuspegi ugari ezagutzeko eta aintzat hartzeko lagungarri izan daitezke egunkarietako binetak.

“La viñeta o tira de humor juega un papel fundamental en esta nueva estrategia editorial, ya que en hechos importantes y de gran trascendencia, como son los relacionados con el terrorismo, interpreta sin complejos su función editorializante e incide con total eficacia en la formación de la opinión pública”.

Blanco, E. (2007): “La viñeta como nueva estrategia editorial de los medios. Visualización del 11-M en los principales escenarios mediáticos.” *Ámbito*, 16 zkia. , 27 orr.

Baita konponbide saiakera (zapuztuak) ere

Iraganari buruzko kontakizun partekatua ez da posible izan orain arte. Alabaina, etorkizun baketsua erdiesteko helburua aintzat hartuta, konponbiderako saiakerak ugaltu egin dira urte hauetan.

Askotan, binetek lagundu egin dute arrazionalizatzeko ahalegin horretan, eta konponbiderako oztopoak erakutsi dituzte: alderdikeria eta nork bere helburuei kosta ala kosta heldu nahi izatea, besteak beste. Izan dira herritarren mesfidantzaren lekuko ere, edo askoren zurruntasuna eta itxiduraren salatari.

Finean, arazoak bideratzeko ahaleginak zapuztu direnean ere, herritarren harridura edo saminaren adierazleak izan dira binetak. Aldi berean, itxaropen zentzudunari atea beti zabalik utzi dioten irudi asko argitaratu dira, bakearen itsasargi izan direnak

ZAINDU MAITE DUZUN HORI Ruper Ordorika

“Iritzi helduak, uste haundikoak, Gure herriaz. Goiz eta arrats berriketan Gure herriaz. Nik ere nahi nituzke Halako segurtasunak eduki. Baina, gauzak zer diren, kontuak ez zaizkit ateratzen ongi.”

DEFENDERÉ LA CASA DE MI PADRE Gabriel Aresti

Defenderé la casa de mi padre. Contra los lobos, contra la sequía, contra la usura, contra la justicia, defenderé la casa de mi padre.

PIDO LA PAZ Y LA PALABRA Blas de Otero

“Escribo en defensa del reino del hombre y su justicia. Pido la paz y la palabra.”

LA PAROLE ERRANTE Armand Gatti

Nous entrons dans un temps qui est le nôtre mais que barricadent des intentions qui ne sont pas les nôtres. Signes, nous devenons notre propre apocalypse.

B. MIÑETAK. ZAMA BI-HOTZEAN: KRA!

SUFRIMENDUA ETA ESKUBIDEEN URRAKETA ETENGABEKO GAIK IZAN DIRA AZKEN HAMARKEDETA UMORE GRAFIKOAN

Euskal gizarteak egoera bortitzak bizi izan ditu, alde askotako eskubideen urraketak eta sufrimendua eraginez. Edozein gizartek ezin du alboratu etengabeko begirada etikoa, eta, gurean, sarritan baztertu egin da besteen minarenganako gertutasuna. Binetetan enpatia hori agertu izan da.

Bestalde, tira grafikoei interpelatu egin gaituzte, hausnarketa kritikorako beta eskaini digute. Binetek ez diote herritarren sufrimenduari bizkarra eman, baina haien begirada aldebakarrekoa izan da maiz. Aniztasuna bildu da hemen, bakoitzak bere aldetik erakutsi duen mina partekatzeko. Muinean sentitutako mina, mintegi izan dadin, gatazken adiera bortitzek eragin duten oinazea, gaurko eta etorkizuneko giza duintasunaren hazi eta bilgune.

“Ridicule is a distinct kind of expression: its substance cannot be repackaged in a less offensive rhetorical form without expressing something very different from what was intended. That is why cartoons and other forms of ridicule have for centuries, even when illegal, been among the most important weapons of both noble and wicked political movements”

Victor S. Navasky (2013). *The Art of Controversy*. New York, Alfred A. Knopf, 49 orr

“Mindua izateak esan nahi du norberak aukera duela minaren inguruan gogoeta egiteko, ezagutu ditzakeela minaren banaketa mekanismoak zein diren, jakin dezakeela muga iragazkorren ondorioz nork gehiago sufritzen duen, ustekabeko biolentzia nork pairatzen duen, desjabetzea eta beldurra nork eta nola nozitzen duen”

Butler, Judith (2006). *Vida precaria: El poder del duelo y de la violencia*. Buenos Aires, Paidós

GERRA Manuel Olaizola “Uztapide”

“[...] Batzuek illak gelditu ziren, beste batzuek elbarri, bear ainbeste errespeto ez geniolako elkarri [...]”

EIDER RODRIGUEZ

“Tristeza duk gerra, maitea, eta ez gudariantzat soilik”

EL HERIDO Miguel Hernández

“La sangre llueve siempre boca arriba, hacia el cielo. Y las heridas suenan, igual que caracolas...”

A LA INMENZA MAYORÍA Blas de Otero

“Tiendas de paz, brizados pabellones, eran sus brazos, como llama al viento; olas de sangre contra el pecho, enormes olas de odio, ved, por todo el cuerpo”.

C. UMOREZ IRAULI

JENDARTEAREN BAKEAREN ETA ESKUBIDEEN ALDEKO MOBILIZAZIOA PIZTU ETA JASO DUTE BINETEK

Topaguneak eraikitzeke borondatea erakutsi du euskal gizarteak. Binetek eskubide guztien aldeko dei etikoa egin dute etengabe. Aitzindari izan dira eskubideen bortxaketan kontrako aldarrian.

Egia da dei horren edukietan lehentasun ugari atzeman direla, baina guztiek ekin diote, finean, eskubideen aldeko konpromisoari. Euskal gizarteak bortizkeriaren aurkako hamaika agerraldi eta protesta bizi izan ditu hamarkada hauetan, eta binetak izan dira mobilizazio etiko horien guztien erakusgarri bizi bezain esanguratsuak.

Eta bineten ironiak arindu dizkigu gosariak: karikatura, satira eta azken buruan, umorearen bitartez bizitako gaituzte

Esan ohi da, gure adimenak karikatura bat ikusita, arinago asmatzen duela nori buruzkoa den, argazki batekin baino. Izan ere, aurpegi bat ezagutzeko haren abstrakzioa ikustearekin aski baita. Hortaz, binetetan agertzen diren pertsonaiek irakurlearengan izan dezaketen eragina, azkarra eta askotan edozein irudi baino iraunkorragoa izan daiteke, eta, zalantzarik gabe, irri-garriagoa. Bineta ez da detailetan galtzen, eta irria da, askotan, norbere baitako hesiak gaituzteko bide bakarra.

Horrela, bineta asko lagungarri izan dira egoera latzak arintzenko eta, apurka, baita atsekabe pertsonalak gaituzteko ere. Haien ekarpena oso baliotsua izan da eguneroko zama astuna eramangarri bilakatzeko.

GIZONAREN AHOA G. Aresti

“Ezin defendi daiteke indarrez. Bakar-bakar-bakarrikan geratzen zaio hitza. Baina ez zazue, baina ez zazue, baina ez zazue, ez zazue tapa gizonaren ahoa”.

ARCO IRIS M. Benedetti

“Entonces su sonrisa si todavía existe se vuelve un arco iris.”

ESPAÑA EN MARCHA G. Celaya

“Ni vivimos del pasado, ni damos cuerda al recuerdo. Somos, turbia y fresca, un agua que atropella sus comienzos”.

EL PLANETA Armand Gatti

“[...]Con nuestros porvenires radiantes En lo que fueros nuestros movimientos de masas Destripados”

O. AURREKARIAK

Tiroka bezala, tiraka ibili gara aspalditik. XIX. mendean prentsa garaikidea sortu zen unetik, satira politikoa gatazkaren isplu izan da: Karlistak eta giristinoak, langileak, nekazariak eta jauntxoak, militarrek eta apaizak, erre-publikarrak eta erregezaleak... Espainiako historia beltza kolorez bete zaigu bineta zahar hauen bitartez... Zaharrak? Gaurko irudi prototipiko gehienak ordukoak dira, baita gatazkaren hainbat gako ere.

TIRABIRAK

Tiras que aflojan

Jornada histórica en Gernika
Con incidentales protagonizadas por los vehículos de IHB

ETA siembra el horror y el pánico en Madrid con tres atentados consecutivos
07.50 h. Un teniente, padre de cinco hijos, muerto al explotar su automóvil en el barrio de Aluche
08.50 h. Una funcionaria y su hija, gravemente mutiladas por otra bomba a 300 metros de distancia
11.30 h. Un comandante pierde las piernas al poner en marcha su coche junto al Paseo de Extremadura

Muerte en comisaría
El Gobierno condecora al primer policía franquista que asesinó ETA

Jendetza handia bildu da Bilbon 'Bakea. ETA ez' leloaren inguruan

El GAL dio muerte a nuestro Consejero y delegado en Iparralde Xabier Galdeano

Errefuxiatuak bahitzea «erabaki politiko» izan zela dio Amedok
Amedok Barne Ministerioari arduradunek ematen zizkiotela deklaratu du polizi ohiak

Gregorio Ordoñez hil dute tiroz Donostian
EAEko PPko bozeramaile, parlamentari eta Donostiako alkatetzarako hautagaia zen

Ex dirigente de ETA reinsertada, asesinada en Ordizia ante su hijo
María Dolores González Catarán, acogida hace menos de un año a las medidas de reinsertación social, llegó a reconocer a sus agresores e intentó huir de ellos

¡Por fin!
ETA rompe la tregua y provoca con su asesinato la indignación social
Ibarretxe juzga insuficiente la respuesta de EH y suspende el pacto de legislatura
Aznar pide que se recupere la dignidad política y la sensibilidad moral

M-11 SARRASKIA MADRILEN
192 HIL ETA 1.400 ZAURITU

TIEMPO DE ESPERANZA
El anuncio de ETA de un "alto el fuego permanente" fue recibido con una mezcla de cautela e ilusión por la mayor parte de los partidos políticos y agentes sociales, mientras que UPN y PP se mostraron escépticos

El hallazgo de los cadáveres de Lasa y Zabala agrava la crisis del 'caso GAL'

ATXILOKETAK
Torturen ondorioz, Sorzabal ospitalera eramantzen zuten atxilotuta

Elkarri inaugura su Conferencia de Paz, que durará seis meses
Gazte independentisten aurkako polizia operazioan 34 lagun atxilotu dituzte

KOLABORATZAILEAK

Bilbo

EHUKultura Bizkaia

Leioa

Leioako Campuseko Liburutegia

Donostia

EHUKultura Donostia

Gasteiz

Centro Cultural Montehermoso Kulturunea

EHUKultura Araba

Baiona

Université de Pau et des Pays de l'Adour
(Campus de la Nive)

Institut Universitaire Varenne

ESKER ONAK

Bizkaiko Foru Liburutegia / Biblioteca Foral de Bizkaia

UPV/EHUko Bizkaiko Kanpuseko Bibliotekaren Hemeroteka / Hemeroteca de la Biblioteca del Campus de Bizkaia de la UPV/EHU

Nafarroako Liburutegi Publikoa-Iruña / Biblioteca Pública de Navarra-Pamplona

Museo Zumalakarregi Museoa


EITB

El Correo, El Diario Vasco, ABC, Berria, Egunkaria, Egin, Gara, Deia, Diario de Noticias, Diario de Noticias de Gipuzkoa, Diario de Navarra, El País, El Mundo, Sud Ouest, Université de Pau et des Pays de l'Adour, Institut Universitaire Varenne, Institut d'Études Ibériques et Ibérico-Américaines



donostiakultura.com

ANTOLATZAILEAK



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

eman ta zabal zazu



Universidad del País Vasco

Euskal Herriko Unibertsitatea